

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EAE-KO UDALEK 2018KO EKITALDIAN ONARTUTAKO KREDITUEN AITORPEN ESTRAJUDIZIALEKO ESPEDIENTEEN FISKALIZAZIOARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu du “EAEko udalek 2018ko ekitaldian onartutako kredituen aitorten estrajudizialeko espedienteak” txostena. Lan hau Estatuko gainerako Kanpo Kontrolerako Organoekin eta Kontuen Epaitegiarekin lankidetzan egin da.

HKEEk guztira 72 espediente aztertu ditu, 20.000 biztanletik gorako 11 udalek izapidetu dituztenak. Aztertutako espedienteen kausetako batek ere ez du ofizioz berrikusteko prozedurarik abiarazi, ez eta Administrazioaren ondare-erantzukizunetik eratorritako kalte-galeren ordain-ematerik ere. Espedienteetako bat ere ez da eragozpenen aurkako erabakitik eratorri, ez du administrazioaren ondare-erantzukizunaren ondoriozko ofiziozko berrikuspen-prozedurarik edo kalte-galeren ordainik eragin, edo gobernuko edo kontu-hartzaitzako organoren bati inolako erantzukizun subjektiborik eskatu.

Espediente horiek onartzeko prozedurari dagokionez, 24 espediente Udalbatzak onartu ditu, 46, Tokiko Gobernu Batzarrak eta bi, alkateak eta kasu guztietan ezargarria den araudia bete da.

Espediente horiek, batez ere, zerbitzu- eta hornidura-kontratuei dagozkie, eta gastu horien ohiko aurrekontu-aplikazioa ez aplikatzea eragin zuten kausak dira: iraungitako kontratuen luzapenak izatea, kontratua iraungitzean kontratazio berrirako espedientea hasia zutenak; hurrengo ekitaldian faktura aurkeztu zitzairen gastuak izatea; edo ezarritako prozedura alde batera utzita edo aurrekontu-kontsignaziorik gabe gauzatutako gastuak izatea.